

BANAKETA KANALA:

Gure produktua edo zerbitzua kontsumitzaileari saltzen diogu zuzenean, bitartekaririk gabe.

Zuzeneko kanala izango da. Asko jota, gure enpresak kontratatuko dituen lehen informatikoak edo lehen informatiko taldeak egingo dute bitartekari lanak. Izan ere, **webgune bat erabiliko dugu irakasleen kontaktua kontsumitzaileen esku ipintzeko**. Beraz, webgunea sortuko duten informatiko horiek izango dira gure bitartekari bakarrak.

Webguneaz gain, **telefono zenbaki bat** plazaratuko dugu ikasleek arazoren bat aurkeztu nahi badute, badaezpada.

Nola helaraziko dugu gure negozioa?

–Web gunea modu fisikoan, **esku orrien bidez** ikusaraziko dugu

–**Sare sozialen** bidez (Instagram, Facebook, Twitter)

–**Institutu edo Lanbide Heziketako** zuzendariekin hitz egingo dugu beraiekin kolaborazio/hitzaldi bat proposatzeko.

- Gure izena ez bada bezeroei esker irekitzen **iragarkiak** jarriko ditugu inguruko **ikastetxetan edo ibilgailu publikoen** geltokitan.

Argi ta garbi ikus daitekeen bezala gure enpresak badaki produktua ikasleentzat ezik gurasoentzat ere bideratuta dagoela. Bada, ikasle batek ere ez ditu jaso nahi eskolaz kanpoko klaseak.

Horrexegatik gazteentzat sare sozialetan iragartzeaz gain eta aplikazio ta webgune bat sortzeaz gain gaztelaniaz esaten den “vieja escuela” eran zabalduko dugu enpresa. Hori dela eta emango ditugu esku orriak, kartelak eskegiko ditugu ikastetxeetan, eskola zuzendariari hitzaldiak emateko baimena eskatuko diegu... Adinez nagusiagoak direnak gure mugimenduaz ohartarazteko, hauek umeak guregana ekartzeko eta enpresa hazteko, alegia.

